2022an aurreikusitako ekintza guztiak egin dira. Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen programaren bidez, honako hauek lagundu dira: enpresetako I+G unitateen 7 proiektu lankidetzan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentroyen I+Gko 34 proiektu, narriadura kognitiboaren prebentzioari buruzko 7 ikerketa-proiektu eta ekipamendu eta azpiegitura zientifiko teknologiko aurreratuetan inbertitzeko 15 proiektu. Talentua erakartzeko eta atxikitzeo Fellows Gipuzkoa Programaren bidez, sei ikertzaile kontratatzea eta Gipuzkoako zentroyetan zazpi mantentzea bultzatu da. Donostia International Physics Centerrek egindako bikaintasun-ikerketari eta Emakumea eta Zientzia Programari laguntzen jarraitu da, zentro horrekin lankidetzan, eta ikerketa zientifikoan emakumearen presentzia sustatzeko helburuarekin. Basque Research & Technology Alliance (BRTA) Euskal Partzuergo Zientifiko-teknologikoari ekarpen bat egin zaio. Gainera, Gipuzkoa Quantum laguntza-programa berriaren bidez, enpresek edo enpresetako I+G unitateek gidatutako 14 I+G proiektu diruz lagundu dira, teknologia horietan adituak diren erakundeekin lankidetzan.

Adierazleei dagokienez, 2022an 77 dira diruz lagundutako ikerketa- eta inbertsio-proiektuak. Aurreikusitakoa baino pixka bat balio handiagoa da. Igoera hori, neurri handi batean, Gipuzkoa Quantum Programa abian jartzearen ondorioz gertatu da. BPGrekiko I+Gko gastuari buruzko adierazleari dagokionez, 2021erako eskuragarri dagoen eta oraindik behin-behinekoa den azken datua 2,69 da Gipuzkoarentzat, aurreikuspenaren eta legegintzaldiaren xedearen gaintetik. Gainera, EAEko (2,11), Estatuko (1,41 2020an) eta Europako (2,31 2020an EB-27n) batez bestekoa baino handiagoa izaten jarraitzen du. Lagundutako enpresetan eragiten duen adierazleak aurrekontu-programa horri erreferentzia egiten ez badio ere, Gipuzkoa Quantum Programaren bidez 11 enpresari lagundu zaie teknologia kuantikoetako I+G proiektuak abian

## Memoria

jartzen.

2022ko ekitaldian, teknologiaren arloan kualitatiboki garrantzitsuak diren bi proiektu jarri dira abian.

Urte amaieran lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu da Massachusetts Institute of Technology (MIT) erakundearekin, Gipuzkoa Lab-en mugikortasun berriaren misioaren esparruan ikerketa bateratua egiteko. Akordio horri esker, Gipuzkoak City Science Network delakoan parte hartu ahal izango du, gure lurraldea nazioarteko erreferentziazko hirien multzo hautatuan kokatuz.

Urte amaieran, halaber, hitzarmen bat sinatu da Ikerbasque Fundazioarekin, erakunde horrek IBM Research-ekin duen lankidetzeta finantzatzeko, teknologia kuantikoen ekosistema baten garapena sustatzeko. Aliantza horren helburua da Gipuzkoa eta Euskadi nazioarteko bikaintasunaren nodo bihurtzea ikerketari, prestakuntzari eta garapenari aplikatutako konputazio kuantikoan. Horretarako, Gipuzkoan azken belaunaldiko ordenagailu kuantiko bat eraikiko da, ZTBES osoari zerbitzuak eskainiko dizkiona.

Aurrekontuaren exekuzioa % 98 baino handiagoa da, eta gertatu diren desbideratze gehienak diruz lagundutako proiektu batzuen aurrekontua gauzatzean izandako gorabehera txikiekin lotuta daude, guztiak ere puntualak eta zenbateko ez oso handietakoak. Desbideratze horiek normaltasunaren barruan sartzen dira berezko ziurgabetasuna duten I+G proiektuetan. MITekiko hitzarmenera bideratutako aurrekontua xedatu da, baina ez da ordaindu, abenduaren amaieran sinatu baitzen.

Lagundutako proiektu gehienak aurreikusitako epeetan gauzatu ziren, eta eman ziren epe-luzapenak, ikerketan izandako gorabeheren edo hornidurak hartzeko atzerapenen ondoriozkoak, ez ziren bi hilabetetik gorakoak izan, eta ekitaldian ebatzi ziren.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako ZTB sarearen eragileei eta enpresetako I+B unitateei laguntzea, bultzatu ditzaten bikaintasuna eta I+G+B proiektuak, ekipamendu aurreratuko inbertsioa, teknologia berriak esploratzea, eta talentu ikertzailea erakarri eta bertakotzea, Gipuzkoa eskualde aitzindaria izan dadin ZTB arloan.



% 12,30



% 7,75

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>6.988.693,00</b>	<b>17.483.359,85</b>	<b>17.172.991,94</b>		
<b>1.1 Ekintza</b> Enpresetako I+G unitateen proiektuetarako laguntza	909.332,20	752.418,20	731.671,37		100,00
<b>1.2 Ekintza</b> ZTBES zentroetako I+G proiektuetarako laguntza	2.797.758,00	3.011.751,54	2.909.791,00		100,00
<b>1.3 Ekintza</b> ZTBESko kideei laguntza ematea ekipamendu zientifikoa eskuratzeko	824.053,20	1.028.356,29	1.022.254,25		100,00
<b>1.4 Ekintza</b> Ikerketa talentua erakartzen eta atxikitzen laguntzea.	492.549,60	443.865,60	444.381,84		100,00
<b>1.5 Ekintza</b> Gipuzkoan teknologia kuantikoen ekosistema bultzatzea.	1.000.000,00	11.234.833,00	11.234.833,00		100,00
<b>1.6 Ekintza</b> Gizarte-berrikuntza bultzatzea, Massachusetts Institute of Technology (MIT) erakundearekin lankidetzan, lurralde-eredua aztertzeke.	150.000,00	151.718,37	1.760,48		40,00
<b>1.7 Ekintza</b> Gipuzkoa Next	315.000,00	860.345,00	828.300,00		100,00
<b>1.8 Ekintza</b> Enpresa txiki eta ertainen trantsizio digitala	500.000,00	71,85			0,00

## Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>2.340.000,00</b>	<b>18.012.600,00</b>	<b>17.684.568,00</b>
<b>1.1 Ekintza</b> Enpresetako I+G unitateen proiektuetarako laguntza	417.149,00	417.149,00	417.149,00
<b>1.2 Ekintza</b> ZTBES zentroetako I+G proiektuetarako laguntza	917.729,00	917.729,00	898.102,00
<b>1.3 Ekintza</b> ZTBESko kideei laguntza ematea ekipamendu zientifikoa eskuratzeko	333.720,00	333.720,00	333.720,00

	<b>Hasierako konpromiso kredituak</b>	<b>Behin betiko konpromiso kredituak</b>	<b>Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua</b>
<b>1.4 Ekintza</b> Ikerketa talentua erakartzen eta atxikitzen laguntzea.	240.000,00	240.000,00	231.595,00
<b>1.5 Ekintza</b> Gipuzkoan teknologia kuantikoen ekosistema bultzatzea.		15.222.600,00	15.222.600,00
<b>1.6 Ekintza</b> Gizarte-berrikuntza bultzatzea, Massachusetts Institute of Technology (MIT) erakundearekin lankidetzan, lurralde-eredua aztertzeko.	300.000,00	750.000,00	450.000,00
<b>1.7 Ekintza</b> Gipuzkoa Next	131.402,00	131.402,00	131.402,00

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

**Beharraren eboluzioa:**

Emakumeek I+Gn duten presentzia Gipuzkoako ikertzaileen eta I+Gn aritzen diren pertsonen % 34 inguru da (EUSTATen datuak), eta eremu jakin batzuetan presentzia are txikiagoa du. Egoera hori Europan, Euskadin eta Estatuan errepikatzen da.

2022an Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Gipuzkoako Sarearen deialdian diruz lagundu diren proiektuen % 47,6 emakume batek gidatzen du. Kopuru hori aurreko urtekoa ( % 36,84) baino handiagoa da. Fellows Gipuzkoa Programan, laguntza jaso zuten ikertzaileen % 53,85 emakumeak izan ziren. Gipuzkoa Quantum Programaren bidez diruz lagundutako proiektuen % 28,57 emakume batek gidatzen du.

Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea programaren 2022ko deialdian, kontuan hartu da emakumeak proiektuaren ikertzaile nagusi gisa duen presentzia eta ikerketa-taldean dagoen emakume kopurua. Aurreko irizpideari jarraitu zaio Gipuzkoa Quantum Programara aurkeztutako eskaerarako. 2022rako talentua erakartzeko eta atxikitzeko Fellows Gipuzkoa deialdian baloratu da hautagaia emakumea izatea eta gizonen eta emakumeen arteko oreka sartzeko sartzeko den ikerketa-taldean. Gainera, hitzarmen berri bat sinatu da DIPCrekin, Emakumea eta Zientzia Programari jarraipena emateko, bikaintasuneko ikerketa zientifikoan emakumearen presentzia sustatzeko helburuarekin.

**Kuantifikazioa:** 69.886,64 ( % 0,20 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	( % 58,25 )	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorruta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	100,00	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	( % 8,25 )	Go.5.1.3. GFAREN azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeko.	100,00	





Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Ek.HO.12.3. Emakumeen presentzia sustatzea Zientzia eta Teknologia esparruan, bereziki postu arduratsuetan, egungo eta etorkizuneko eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzen eta baldintzatzen ari diren gakoetako bat baita esparru hori.	( % 25,00 )	Ek.12.3.1. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal sarearen esparruan emakume zientzialarien ahalduntzea sustatuko duten esperientzia pilotu bat sustatzea.	100,00	
		Ek.12.3.2. Emakumeak, eta bereziki emakume gazteak, mundu teknologikora hurbiltzea bultzatuko duten neurriak sustatzea.	100,00	
		Ek.12.3.3. Zientzia eta teknologia esparruan postu garrantzitsuetan ari diren emakumeen identifikazioa sustatzea eta nazioarte mailako jardunbide egokien azterketa egitea emakume zientzialariak lanpostu arduratsuetara bil daitezzen.	100,00	
Ea.HO.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkari eta/edo postu publikoetan.	( % 8,50 )	Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	100,00	



## HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarera aurkeztutako 98 eskaeretatik 9k euskara aukeratu zuten komunikazio-hizkuntza gisa. Fellows Gipuzkoa programan, aurkeztutako eskaeretako batek euskara aukeratu zuen. Zifrak aurreko urtekoen antzekoak dira. Gipuzkoa Quantum programa berriaren kasuan, erakunde bakar batek ere ez zuen euskara aukeratu komunikazio-hizkuntza gisa.

**Kuantifikazioa:** 69.886,64 ( % 0,20 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	( % 100,00 )	Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da	100,00

GJH

Kuantifikazioa: 6.988.664,46 ( % 20,05 )

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>8-LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</b> Guztiantzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu vetea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	<b>3.136.683,21</b>	<b>1.150.723,16</b>
<b>Helburura</b>	8.02 - Produktibitate ekonomiko handiagoa lortzea dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handiko sektoreetan oinarrituta.	1.712.809,71	600.892,83
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Gipuzkoako ZTB sarearen eragileei eta enpresetako I+B unitateei laguntzea, bultzatu ditzaten bikaintasuna eta I+G+B proiektuak, ekipamendu aurreratuko inbertsioa, teknologia berriak esploratzea, eta talentu ikertzailea erakarri eta bertakotzea, Gipuzkoa eskualde aitzindaria izan dadin ZTB arloan.	1.712.809,71	600.892,83
<b>Helburura</b>	8.03 - Garapenera bideratutako politikak sustatzea, produkzio jarduerak, lanpostu duinak sortzea, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza babesteko.	1.423.873,50	549.830,33
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Gipuzkoako ZTB sarearen eragileei eta enpresetako I+B unitateei laguntzea, bultzatu ditzaten bikaintasuna eta I+G+B proiektuak, ekipamendu aurreratuko inbertsioa, teknologia berriak esploratzea, eta talentu ikertzailea erakarri eta bertakotzea, Gipuzkoa eskualde aitzindaria izan dadin ZTB arloan.	1.423.873,50	549.830,33
	<b>9-INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</b> Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.	<b>1.971.415,25</b>	<b>729.842,84</b>
<b>Helburura</b>	9.5 - Ikerketa zientifikoa handitzea eta industria sektoreen gaitasun teknologikoa hobetzea, besteak beste berrikuntza sustatuz eta nabarmen areagotuz ikerkuntzan eta garapenean lan egiten duten pertsonen kopurua eta sektore publiko eta pribatuek ikerkuntzan eta garapenean dituzten gastuak.	1.971.415,25	729.842,84
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Gipuzkoako ZTB sarearen eragileei eta enpresetako I+B unitateei laguntzea, bultzatu ditzaten bikaintasuna eta I+G+B proiektuak, ekipamendu aurreratuko inbertsioa, teknologia berriak esploratzea, eta talentu ikertzailea erakarri eta bertakotzea, Gipuzkoa eskualde aitzindaria izan dadin ZTB arloan.	1.971.415,25	729.842,84
<b>Guztira</b>		<b>5.108.098,46</b>	<b>1.880.566,00</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Xedatua Dispuesto</b>	<b>Gauzatzea Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	135.516,00	135.516,00	140.680,21	140.680,21	140.680,21	103,81
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		158.900,00	157.429,51	157.429,51	157.429,49	99,07
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	2.180.000,00	830.071,85	812.684,00	812.684,00	662.684,00	79,83
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>2.315.516,00</b>	<b>1.124.487,85</b>	<b>1.110.793,72</b>	<b>1.110.793,72</b>	<b>960.793,70</b>	<b>85,44</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	4.673.177,00	16.358.872,00	16.212.198,24	16.212.198,24	16.212.198,24	99,10
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>4.673.177,00</b>	<b>16.358.872,00</b>	<b>16.212.198,24</b>	<b>16.212.198,24</b>	<b>16.212.198,24</b>	<b>99,10</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>6.988.693,00</b>	<b>17.483.359,85</b>	<b>17.322.991,96</b>	<b>17.322.991,96</b>	<b>17.172.991,94</b>	<b>98,22</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales</b>	<b>Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos</b>	<b>Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados</b>	<b>Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		72.600,00	72.600,00	72.600,00	100,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	300.000,00	750.000,00	450.000,00	450.000,00	60,00
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>300.000,00</b>	<b>822.600,00</b>	<b>522.600,00</b>	<b>522.600,00</b>	<b>63,53</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	2.040.000,00	17.190.000,00	17.161.968,00	17.161.968,00	99,84
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>2.040.000,00</b>	<b>17.190.000,00</b>	<b>17.161.968,00</b>	<b>17.161.968,00</b>	<b>99,84</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>					
<b>Guztira / Total</b>	<b>2.340.000,00</b>	<b>18.012.600,00</b>	<b>17.684.568,00</b>	<b>17.684.568,00</b>	<b>98,18</b>



**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	140.680,21			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	157.429,49		72.600,00	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	662.684,00		450.000,00	
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>960.793,70</b>		<b>522.600,00</b>	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	16.212.198,24		17.161.968,00	
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>16.212.198,24</b>		<b>17.161.968,00</b>	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>17.172.991,94</b>		<b>17.684.568,00</b>	
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>98,22</b>		<b>98,18</b>	

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	04 - EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO
<b>Atala:</b>	0420 - Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	210 - Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea
<b>Funtzionala:</b>	433 - Enpresa garapena

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Gipuzkoako enpresen nazioartekotzea sustatu, kanpora ireki daitezen lagunduz, hurbiltetaren bidez, hazkundearen bidez eta nazioarteko merkatuetan egonkortzearen bidez, esportazioen balorea handitzeko batetik, eta kanpoan saltzen duten enpresa kopurua handitzeko bestetik.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Euskadi, gaur egun, Europako ekonomiarik irekienetako bat da, 5.300 enpresa baino gehiago esportatzen edo bost kontinenteetan ezartzen baititu; esportazioak Euskadiko BPGaren % 33,3 dira, eta euskal enpresaren negozio osoaren % 45 dira.

Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren behin-behineko datuen arabera, 2022an % 19ko hazkundea izan da, serie historikoaren zenbatekorik handiena.

Datuak ez datoz bat nazioarteko hozte-joerarekin. Inflazioaren aurkako mundu borrokak, Errusiako gerrak Ukrainan eta Covid-19aren berragerpenak Txinan eta Espainia-Aljeria krisiak zalantza handiak dituzte etorkizunerako esportazio zifrak mantentzearen inguruan.

2023an ekonomia globalaren hazkundeari buruzko ziurgabetasun-giroa mantentzen da, Estatu Batuetako neurri protekzionistek eta Europak eman dezakeen erantzunak areagotuta.

Horrek guztiak berresten du beharrezkoa dela ETEak kanpora ateratzen laguntzea, merkatu berriei heltzea eta daudenak sendotzea, fakturazioaren eta enpleguaren zati handi bat horri lotuta baitago.

### Beharraren eboluzioa:

2022ko emaitzak onak izan arren, 2023ko panorama oso gorabeheratsua da oraindik ere, bai inflazioa geldiarazteko hartzen ari diren ekonomiaren hozte-neurriengatik, bai barne-merkatuak babesteko herrialdeen arteko nolabaiteko tentsio-igoeragatik.

Hala ere, Gipuzkoako enpresek beren merkatu tradizionalak sendotu behar dituzte, eta, aldi berean, merkatu horien alternatibak bilatu behar dituzte, eremu geografikoak dibertsifikatuz eta Europako herrialdeetakoak baino hazkunde-kuota handiagoak mantenduko dituzten herrialdeetan sartzearen aldeko apustua eginez.

Enpresek, halaber, salmenta-teknikak eta ohiko merkataritza-harremanen osagarriak edo alternatiboak ezartzeko premia dute, merkataritza elektronikoko eta marketin digitaleko elementuak txertatuz. Esparru horretan, gure enpresak, batez ere ETEak, atzeratuta daude gure ingurune hurbileko herrialdeekin alderatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, dauden laguntzen programaren bidez nahiz Gipuzkoako Bazkondearekin duen hitzarmenaren bidez, enpresen zerbitzura jarri nahi ditu eraldaketa hori bizkortzen laguntzeko bitartekoak, bai esparru digitalean, bai nazioarteko merkatuetan egoteari dagokionez.

### Nori zuzendua:

Gipuzkoako enpresak: ETEak eta OTEBak lehentasunez.

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

Langileak. Baliabide ekonomikoak. Laguntza teknikoak

### 2. Garatu beharreko

Gipuzkoako enpresak nazioartekotzen laguntzeko laguntzak diseinatzea eta kudeatzea.

Kanpoko merkatuetara jotzeko laguntza (merkataritza-harremanak eta laguntza publikoak kontuan hartuta) eta aukerak aztertzea eta hemengoan artean ezagutaraztea.

Nazioartekotze-eragileekin lankidetzan aritzea

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Dirulaguntzak  
Informazioa nazioarteko merkatuei buruz  
Nazioarteko merkatuetarako joateko babesak  
Laguntza teknikoa

**Programaren arau esparrua:**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzak jasotzen dituen araudia. Administrazio arloko arautegi orokorra.


**2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Enpresa proiektu lehiakorrek eta jasagarriak (ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik) sortzeko eta garatzeko giroa bultzatzea, Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko lankidetzan estuan.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Esportazio kopuruaren gehikuntza	Ehunekoak	0,93	1,02	1,14	1,08
Lagundutako nazioartekotzerako proiektu kopurua	Kopurua	34,00	33,00	43,00	120,00
GFAk lagundutako enpresa berrien artean 3 urtetik gora irauten dutenen %	Ehunekoak	59,00	85,00	62,50	85,00
Emakumezkoak		0,00	86,00	59,00	86,00
Gizonezkoak		0,00	84,00	66,00	84,00


**Joera**

Esportazio kopuruaren gehikuntza – Ehunekoak






Lagundutako nazioartekotzerako proiektu kopurua – Kopurua



GFAk lagundutako enpresa berrien artean 3 urtetik gora irauten dutenen % - Ehunekoa



Memoria

2022ko ekitaldian aurreikusitako jarduketa guztiak egin dira, baina ez da desbideratze esanguratsurik egon ez epean, ez aurrekontua gauzatzean.

Nazioartekotzeko enpresei zuzendutako laguntza-programan, ildo berri bat diseinatu zen enpresa txikiak taldeka nazioartekotzen laguntzeko, klusterrek diseinatutako ekintzen bidez.

Lehenengo ekitaldi honetan aurkeztutako proiektu bakarra Habc klusterrarena izan zen (Euskal Autonomia Erkidegoko ekipamendu, altzari eta diseinuaren klusterra). Kluster horrek bi produktu-aurkezpen diseinatu zituen Frantzian, sektoreko 10 enpresa baino gehiagorekin, batez beste 50 pertsonatik beherakoak.

Nazioarteko produktu berriak merkaturatzeko ildoan, 21 enpresa lagundu ziren guztira, eta ezarpenen

## Memoria

ildoan, proiektu bat babestu zen.

Aurrekontu-programa horretan sartzen da, halaber, lurraldeko enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzea sustatzeko Gipuzkoako Ganberarekin sinatutako hitzarmena. Hitzarmenaren barruan, 78 enpresak eman zuten laguntza. 2022an amaitu zen hitzarmenak honako hauetarako laguntzak zituen:

Lagundex: beste herrialde batzuetan eskaintza publiko zein pribatuak aurkezten laguntzea (12 enpresa lagundu dira).

Lagundex operazionala: enpresek beren produktuak esportatzeko erabiltzen duten dokumentazioaren analisisia (lagundutako 27 enpresa).

OTEBak: oinarri teknologikoko 4 enpresa berri lagundu ziren beren negozioak nazioartekotzeko plan bat garatzeko, bai eta nazioartekotzeko lehen jarduerak egiteko ere (azoketan parte hartzea, balizko erosleei produktuak aurkeztea...).

Gipuzkoa Zabaltzen: nazioartekotzearen arloan aktiboak diren eta beren merkatuak dibertsifika ditzaketen enpresei zuzendutako jarduera. Horretarako, herrialde egokien azterketan laguntzen zaie (15 enpresa lagundu dira).

Misioak: 2022ko ekitaldian, merkataritza eta zaintza teknologikoko misio bat egin zen Herbehereetan, eta 10 erakundek parte hartu zuten.

Market e-Support: Gipuzkoako ganberarekin diseinatutako linea berria, enpresa txiki eta ertainei nazioartekotzearen arloko estrategia digitala zehazten laguntzeko. Lehenengo urte honetan, enpresa mekanizatzaileen kolektibora bideratu ziren ahaleginak (10 enpresa lagundu ziren).

EUSTATen 2022ko datuen arabera, Euskadirako esportazioen datuek errekor handiagoa ekarri zuten orain arte, baita 2018koak baino ere, urte horrek baitzuen orain arte gure enpresen kanpo-salmenten bolumen handiena erregistratuta. Gipuzkoako esportazioak % 22,0 hazi dira 2022. urtean, eta, partida nagusien artean, nabarmentzekoak dira honako hauek izandako hazkundeak: Automotorrak trenbideetarako eta tranbia autopropulsatu elektrikoetarako (% 1.233,7ko igoera), guztira 458,4 milioi esportatu dira; Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak (% 31,5 eta 827,8 milioi), eta Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak (% 12,0 eta 747,4 milioi).

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Enpresen nazioartekotze bidean konpainia zerbitzua ematea eta enpresa esportatzaileen oinarria hantzea.



% 79,09



% 20,91

## Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>1.364.014,00</b>	<b>1.225.806,00</b>	<b>1.198.438,30</b>		
<b>1.1 Ekintza</b>					
Gipuzkoako enpresaren nazioartekotzea sustatzea	908.014,00	769.806,00	742.438,30		100,00
<b>1.2 Ekintza</b>					
Eragile sozioekonomikoekin hitzartutako ekintza, enpresa esportatzaileen oinarria handitzeko	456.000,00	456.000,00	456.000,00		100,00

## Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
<b>Jarduketa ildoak, guztira</b>	<b>676.000,00</b>	<b>676.000,00</b>	<b>552.000,00</b>
<b>1.1 Ekintza</b> Gipuzkoako enpresaren nazioartekotzea sustatzea	400.000,00	400.000,00	276.000,00
<b>1.2 Ekintza</b> Eragile sozioekonomikoekin hitzartutako ekintza, enpresa esportatzaileen oinarria handitzeko	276.000,00	276.000,00	276.000,00

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren eboluzioa:**

Programa gauzatzean, genero-alderdiei buruzko informazioa eskatzen dugu, bai antolaketaren ikuspegitik, bai inplikaturako lantaldeen ikuspegitik. Genero-berdintasuneko politikekin lotutako proiektuen puntuazioan balorazio bat dago. Horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan sentsibilitate handiena duten enpresei lagundu nahi zaie.

Basque Trade-k berriki egindako ikerketa baten arabera, emakumeek enpresa esportatzaileen guztizko enpleguaren % 29 baino ez dute ordezkatzen. Enpresen % 16 soilik dira emakumeak, eta zuzendaritza-taldeak osatzen dituzten pertsona guztien % 31,9 dira (enpresen % 32k ez du emakumerik zuzendaritza-taldean).

Oro har, emakumeen presentzia ez da hain estrategikoak eta erantzukizun txikiagokoak diren lanpostuetan oinarritzen (beste batzuk: finantzariora, administrazioa...), eta presentzia erlatibo txikia dute diseinuaren, garapen estrategikoaren eta nazioarteko filialen arduradunaren arloetan.

**Kuantifikazioa:** 24.824,38 ( % 1,42 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	( % 50,00 )	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorruta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	100,00	
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	( % 50,00 )	Go.5.1.3. GFAREN azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeko.	100,00	

## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren eboluzioa:

Programei buruz egindako komunikazio guztia bi hizkuntzetako komunikazio-araudira egokitzen da, eta ahozko komunikazioan euskararen erabilera lehenesten da. Proiektuak aztertzean, positiboki baloratzen da enpresek euskara-plan bat izatea, eta puntuazio gehigarria lortzen da, dirulaguntza lortzeko aukera hobetzeko.



**Kuantifikazioa:** 27.688,77 ( % 1,58 )

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	( % 100,00 )	Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da	100,00
		Prentsan jartzen diren iragarkiak eta gainerako publizitate ekintzak 2 hizkuntza ofizialetan egingo dira.	100,00
		Prentsa iragarkiak eta gainerako publizitate ekintzak 2 hizkuntza ofizialetan egingo dira.	100,00

GJH

**Kuantifikazioa:** 1.750.438,30 ( % 100,00 )

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<b>8-LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</b> Guztionez hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu vetea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	<b>970.438,30</b>	<b>414.000,00</b>
<b>Helburura</b>	8.02 - Produktibitate ekonomiko handiagoa lortzea dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handiko sektoreetan oinarrituta.	970.438,30	414.000,00
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Enpresen nazioartekotze bidean konpainia zerbitzua ematea eta enpresa esportatzaileen oinarria hantzea.	970.438,30	414.000,00
	<b>17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA</b> Ezarpn-baliabideak sendotzea eta Garapn Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	<b>228.000,00</b>	<b>138.000,00</b>
<b>Helburura</b>	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezcn sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	228.000,00	138.000,00
<b>Jarduketa ildoak</b>			
	Enpresen nazioartekotze bidean konpainia zerbitzua ematea eta enpresa esportatzaileen oinarria hantzea.	228.000,00	138.000,00
<b>Guztira</b>		<b>1.198.438,30</b>	<b>552.000,00</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako aurrekontua Ppto Inicial</b>	<b>Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Xedatua Dispuesto</b>	<b>Gauzatzea Ejecución</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL						
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS						
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.144.014,00	1.125.806,00	1.098.438,30	1.098.438,30	1.098.438,30	97,57
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>1.144.014,00</b>	<b>1.125.806,00</b>	<b>1.098.438,30</b>	<b>1.098.438,30</b>	<b>1.098.438,30</b>	<b>97,57</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	220.000,00	100.000,00	100.000,00	100.000,00	100.000,00	100,00
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>220.000,00</b>	<b>100.000,00</b>	<b>100.000,00</b>	<b>100.000,00</b>	<b>100.000,00</b>	<b>100,00</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.364.014,00</b>	<b>1.225.806,00</b>	<b>1.198.438,30</b>	<b>1.198.438,30</b>	<b>1.198.438,30</b>	<b>97,77</b>



**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

<b>Gastuen kapituluak Capítulos gastos</b>	<b>Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales</b>	<b>Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos</b>	<b>Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados</b>	<b>Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos</b>	<b>Gauzatze % % Ejecución</b>
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	576.000,00	576.000,00	532.000,00	532.000,00	92,36
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>576.000,00</b>	<b>576.000,00</b>	<b>532.000,00</b>	<b>532.000,00</b>	<b>92,36</b>
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	100.000,00	100.000,00	20.000,00	20.000,00	20,00
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>100.000,00</b>	<b>100.000,00</b>	<b>20.000,00</b>	<b>20.000,00</b>	<b>20,00</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>					
<b>Guztira / Total</b>	<b>676.000,00</b>	<b>676.000,00</b>	<b>552.000,00</b>	<b>552.000,00</b>	<b>81,66</b>





**PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA**

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL				
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS				
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.098.438,30		532.000,00	
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>1.098.438,30</b>		<b>532.000,00</b>	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	100.000,00		20.000,00	
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>100.000,00</b>		<b>20.000,00</b>	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>				
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.198.438,30</b>		<b>552.000,00</b>	
<b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>	<b>97,77</b>		<b>81,66</b>	

## Programaren datu orokorrak

<b>Departamentua:</b>	04 - EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO
<b>Atala:</b>	0420 - Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	220 - Gipuzkoa 4.0: Fabrikazio aurreratua
<b>Funtzionala:</b>	422 - Industria

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Enpresen lehiakortasuna indartzea, gure enpresa-sarea eraldatzen lagunduz, Gipuzkoako enpresa lehiakor baterantz, 4.0 industriaren teknologia disruptiboak barne hartzen dituen enpresa aurreratuaren eredurantz, gure ekonomiaren suspertzea eta kalitatezko enpleguari eustea bultzatzeko bitarteko gisa.

Espezializazio adimendunaren bidez industriaren eraldaketa lehiakorraren aldeko apustuari eustea, batez ere Gipuzkoa mugikortasun elektrikoaren, zibersegurtasunaren edo gastronomiaren erreferentzia den eremuak sustatuz, ekonomia berdea edo adimen artifiziala bezalako aukera-eremu berriak alde batera utzi gabe.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

2022. urte osoan, barne produktu gordinaren hazkundera % 4,4koa izan da eta enplegua % 3,1ekoa, EUSTATEk Euskadirako egindako kalkuluen arabera. Gipuzkoaren kasuan, zenbatetsitako hazkundera % 4,2koa izan da, Arabakoa eta Bizkaikoa baino puntu bat txikiagoa.

2022an salmentak berreskuratu dira berriro, % 13,2ko igoerarekin, eta hazkundera % 12,3koa izan da barne-merkatuan, eta esportazioak % 15era hazi dira, orain arteko zifrak gaindituz.

Esan daiteke ekitaldi ona izan zela hazkunderari dagokionez, baina hasieran aurreikusitakoa baino okerragoa, baina marjinak mantentzearen edo murriztearen kontura.

2023rako fronte asko daude aldi berean irekita, kasu askotan erlazioz gertatu, eta horien gakoak itxaropenetan eta, batez ere, lan-merkatuan duen eragin-maila da. Ezagutzen diren arazoez gain, besteak beste, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerra, munduko egoera ekonomikoa baldintzatzen jarraitzen duena, prezioen bilakaeran eta lehengaien eta produktu energetikoen horniduran eragin handia duena, inflazioaren aurka borrokatzeko neurriak, kreditua murriztu eta garestituko dutenak, Txinako hazkundera ohiko mailetatik oso behera eta Estatu Batuetan hartutako neurri protekzionistak, Europar Batasunaren erantzun irmoa eragingo dutenak. Horrek guztiak mundu-mailako hazkunderaren uzkurdura adierazten du.

Hori gutxi balitz, jarduera-sektore asko daude lanpostu hutsak betetzeko profil egokiak aurkitzeko, eta hori bereziki kritikoa da berrikuntzan oinarritutako gurea bezalako ekonomia batean.

Berrikuntzari dagokionez, enpresen gastuak % 8,7 egin zuen gora 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua), eta lehen aldiz gainditu zituen 3.000 milioi euroak Euskal AEn.

EUSTATEn 2021eko datuen arabera, Gipuzkoako enpresek, oro har, BPGrekiko guztizko gastu handiena egin dute berrikuntza-jardueretan, zehazki, % 3,97, Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa. Gastu horren zatirik handiena barneko I+Gn oinarritzen da, BPGaren guztizkoaren gaineko 2,59rekin; hala ere, kanpoko I+Gri dagokionez, gastuaren maila Euskadiko batez bestekoa (% 0,57) baino % 0,5 txikiagoa da. Berrikuntza-jardueretako gastuaren kasuan, % 0,88koa baino ez da, BPGrekiko (Euskadiko batez bestekoa) % 1,20tik oso urrun, eta Gipuzkoa azken postuan dago adierazle horretan.

### Beharren eboluzioa:

Energiaren eta lehengaien prezioen gorakadak agerian uzten du ezinezkoa dela gure enpresen lehiakortasunaren alde egitea kostuei dagokienez soilik; ekonomien uzkurdurak enpresen lehiakortasuna indartzea eskatzen du, baliozko produktu eta zerbitzu gehiago eta hobeei dagokienez. Beharrezkoa da berrikuntzaren aldeko apustuan sakontzen jarraitzea, balio erantsi handiagoa sortzeko eta lehiarako abantaila sortzeko. Aldatzeko premia horren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du, batez ere, gure enpresa txiki eta ertainen negozio-ereduen eraldaketa digitalean lehentasuna ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresen zerbitzura jarri nahi ditu eraldaketa hori bizkortzen laguntzeko bitartekoak, ez soilik eremu digitalean, baita beste alderdi batzuetan ere, hala nola trantsizio energetikoan edo ekonomia iraunkorrean, ahaztu gabe berrikuntzaren beharra, hori baita eraldaketa horiek lortzeko funtsezko palanka. Beharrezko eraldaketa horiek bizkortzeko, lurraldeak gaitasunak dituen sektore estrategikoak bultzatzen jarraitu behar du Aldundiak, eta sektore horien inguruan eutsiko diogu laguntzari, hala nola mugikortasun berria, zibersegurtasuna, gastronomiaren eta elikadura iraunkorraren balio-katea, eta apustu berriak egin behar ditu etorkizuneko jardueren inguruan, Gipuzkoak abantaila diferentzialak baititu, konputazio kuantikoaren kasuan bezala.

**Nori zuzendua:**

Enpresak (enpresa handiak, enpresa txikiak, ETEak, irabazi asmorik gabeko erakundeak,...) eta herritarrek.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Langileak. Baliabide ekonomikoak. Laguntza teknikoak

**2. Garatu beharreko**

Inbertsioa sustatzeko eta fabrikazio aurreratuaren merkatura bideratutako teknologiak eta produktuak garatzeko programak, bai eta erakustaldi teknologikoko proiektuak eta diagnostikoak garatzeko programak ere, Industria 4.0 kontzeptuaren errealitatea ETEetara hurbiltzeko.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

I+G proiektuen garapena produktu berriak sortzeko.

Teknologia aurreratuaren ezarpena enpresen lehiakortasunarekin talka egin dezaten.

Garapen teknologiko berrien merkaturatzea azkartu.

Hobeto formatutako pertsonak. Kalitatezko enplegua.

**Programaren arau esparrua:**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzak jasotzen dituen araudia. Berrikuntza Digitalean aplikatu daitekeen sektorekako araudia. I+G zentzorei aplikatu dakiekeen araudia.


**2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Gipuzkoako espezializazio adimenduna indartzea, enpresaren eraldatze lehiakorra sustatzea berrikuntzaren eta 4.0 teknologien bidez, ZTB ekosistemaren bikaintasuna eta agenteen arteko elkarlana.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealia	Agintaldiko helburua
Berrikuntza jardueretan egindako gastuaren gehikuntza (>10 lanpostu)	Kopurua	101,37	101,50	111,28	106,00
Lagundutako enpresa kopurua.	Kopurua	138,00	110,00	121,00	130,00

**Joera**

Berrikuntza jardueretan egindako gastuaren gehikuntza (>10 lanpostu) – Kopurua



Lagundutako enpresa kopurua. – Kopurua



Memoria

Aurrekontu-programa honek ETEak berritzeko laguntzak jasotzen ditu, batez ere eraldaketa digitalera edo Aldundiak estrategikotzat jotzen dituen sektoreetako jarduerak bultzatzera bideratutakoak.

Eraldaketa digitalaren esparruan, Re-think Industry jardunaldiaren bigarren edizioa nabarmendu behar da. 400 enpresa baino gehiago bildu zituen, Gipuzkoako enpresa txikien eraldaketa digitalaren kasu arrakastatsuek erakusteko.

Ekitaldi honetan ere, sektoreko esperientzia bati heldu zitzaion, eraikuntzaren sektoreko enpresen eraldaketa digitalera bideratua; horretarako, ASCONGIrekin eta ERAIKUNE Klusterrarekin lankidetzan, egoeraren eta beharren diagnostikoak egin ziren sektoreko enpresen digitalizazioaren inguruan. Guztira 24 enpresak hartu zuten parte diagnostikoan, eta bigarren fase batean laguntza-programa bat diseinatu zen plan horietatik eratorritako beharrei erantzuteko. Programa horri 21 enpresak heldu zioten.

Gipuzkoa Digitala programak 4.0 produktua garatzeko ildoak bultzatu zituen, eta horietatik 33 enpresak jaso zuten etekina, eta DATEKIN ildoak, erabakiak hartzeko enpresa-informazioa modu adimentsuagoan erabili nahi duenak. 2021ean diseinatu zen programa horrek % 100etik gorako hazkundea izan zuen joan den ekitaldian, eta 48 eskaera aurkeztu ziren guztira programara, eta horietatik 35ek jaso zuten laguntza.

Gipuzkoako eskualde-garapenerako agentzien sarearekin (ETE digitala) lankidetzan garatu genuen jarduerak, enpresa txikienei eraldaketa digitalerako ibilbide-orri bat ezartzen laguntzeko helburuarekin, 200 enpresa inguru mobilizatu zituen hainbat sentsibilizazio-jardueratan, eta hainbat enpresatan 70 proiektu baino gehiago diseinatu ziren lagundu du.

Aurrekontu-programa horretan, Aldundiak estrategikotzat jotzen dituen beste hainbat sektorerentzako hiru laguntza-programa ere sartzan dira: mugikortasun berria, ziber segurtasuna eta gastronomia.

Smart Mobility Industrial programak 20 enpresa lagundu zituen guztira joan den ekitaldian. Horietatik erdiek produktuen berrikuntza-proiektuak garatu zituzten, zortzik produktuen esperientzioko bi proiektu pilotutan parte hartu zuten, eta bik mugikortasun berriarekin lotutako teknologien azterketa estrategikoa egiteko laguntza jaso zuten. Proiektu horietako batek, Gipuzkoako Ganbera buru duenak, ETEei dibertsifikazioan laguntzea du helburu, ibilgailu elektrikoaren sektoreko balio-katean sartzera bideratuta.

Sukalberri programa, gastronomiaren sektoreko balio-katearen barruan proiektuak bultzatzera zuzendua, 16 berrikuntza-proiektu guztira.

Zibersegurtasun programak 24 enpresei eman zien laguntza hiru laguntza-ildoetan: ziber segurtasunaren azterketa eta segurtasun industrialeko ziber planen diseinua, produktu ziber segurua eta I+G proiektuak.

Jarduketak oro har garatu ziren, aurreikusitako egikaritze-epetan desbideratzerik gabe, eta aurrekontuetan desbideratze handiagorik gabe, proiektuaren exekuzioren batek eragindakoak baino gehiago, hasieran aurreikusitakoaren azpitik, eta berrikuntzarekin lotutako proiektuetan saihetsezinezko desbideratze txikiak izan ziren. Enpresek berrikuntzan egindako gastua % 8,7 handitu zen 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua), eta lehen aldiz gainditu zituen 3.000 milioi euroak Euskal AEn.

EUSTATen 2021eko datuen arabera, Gipuzkoako enpresek, oro har, BPGrekiko guztizko gastu handiena egin dute berrikuntza-jardueretan, zehazki, % 3,97, Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa. Gastu horren zatirik handiena barneko I+Gn oinarritzen da, BPGaren guztizkoaren gaineko 2,59rekin; hala ere, kanpoko I+Gri dagokionez, gastuaren maila Euskadiko batezbestekoa (% 0,57) baino % 0,5 txikiagoa da. Berrikuntza-

## Memoria

jardueretako gastuaren kasuan, % 0,88koa baino ez da, BPGrekiko (Euskadiko batezbestekoa) % 1,20tik oso urrun, eta Gipuzkoa azken postuan dago adierazle horretan.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

Industriaren lehiakortasun eraldaketa sustatzea, 4.0 industriaren teknologiak sustatzeko estrategiak eta programak baliatuta, arreta berezia jarrita enpresa txiki eta ertainetan (toki agentzien bidez) eta sektore estrategikoetan.



